

**Klimaren
aldeko
*herri ituna***



ehbildu

Klima-krisia arintzeko eta horretara egokitzeko politikiei dagokienez COP26 klimaren gailurrak inflexio-puntu bat izateko erronka zuen. Zoritxarrez ez zen horrela izan. Erregai fosilen industriaren interes ekonomikoek Parisko Akordioak ezarritako helburuekin bat zetorren agenda bat ezartzeko asmo handiko akordio bat eragotzi zuten.

Argi dago helburu horiek ukaezinak direla: berotze globalari bi gradu zentigradutik behera eustea eta industriaurreko balioekiko gradu eta erdira mugatzen saiatzea. Inork ez du hori zalantzan jartzen. Hala ere, aukera-leiho itxi egiten ari da.

NBEren Klima Aldaketari buruzko Nazioarteko Panelak (IPCC), klimari buruzko zientziaren egoeraren berrikuspene zehatza garatzen ari da, eta horren baitan, inpaktuen txosten eguneratua argitaratu berri du. Bertan adierazi da gizateriak eragindako klima-aldaketak “inpaktu kaltegarri orokorrak” eragin dituela jada bai naturan zein pertsonengan. Ondorio negatibo horiek “sektore eta eskualde guztietan” nabaritzen direla ere aipatzen da, nahiz eta kaltetuenak eskualde “ahulak” izan. Hortaz, munduko biztanleriaren ia erdia klima-aldaketarekiko “oso kalteberak” diren inguruetan bizi dela ondorioztatu da, hala nola, “klima-aldaketaren inpaktuen irismena eta tamaina aurreko ebaluazioetan aurreikusitakoa baino handiagoak” direla.

Parisko Akordioaren helburuak egikaritu nahi badira (argi izanik horik ez betetzeak ondorio suntsitzaileak ekarriko lituzkeela ekologiari, gizarteari eta ekonomiari dagokienez), hamarkada honen amaierarako egungo emisioak erdira murriztu behar dira.

Beraz, zortzi urte geratzen zaizkigu lehen helmuga lortzeko. Emisioak hain denbora laburrean erdira murrizteko helburua erronka handia da, eta ekintza global eta lokal erabakigarri baten bidez baino ezin da konpondu, behar bezala egituratuta eta justizia klimatikoaren nozio sakon batek gidatuta.

COP26 gailurrak argi baino itzal gehiago utzi zituen, eta ebidentzia eztabaidaekin bat: maila globalean konpromiso loteslerik ez izateak ezin du eragotzi nork bere gain hartzea toki-mailan hartu beharreko konpromisoak, atzerapen gehiagorik gabe. Gaurko erabakiek egungo eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea zehaztuko dute. Denbora agortzen ari da. Gizarte modernoek inoiz izan duten belaunaldi-erronkarik handienaren alde elkarrekin borrokatzera deituta gaude.

Euskal Herriak bat egin behar du une historiko honek eskatzen duen ekintza klimatikoarekin. Horretarako, lidergo instituzionalarekin batera, gizarte-mobilizazioa funtsezkoa izan behar da konpromiso tasatu eta lotesleak planteatzen dituen ibilbide-orri bat garatzeko euskal erakunde guztientzat eta klima-aldaketaren aurkako borrokan interesa duten eragileentzat.

Ibilbide-orri horren oinarriak formulatzeko unea da, berehala martxan jarri beharko liratekeen ardatz estrategikoen mugatutako jarduera-eremu bat: kontratu sozial bat, belaunaldien arteko itun zabal bat, datozen hilabete eta urteetako politika klimatikoak ezartzeko beharrezkoak diren adostasun instituzional eta sozialak eraikitzea ahalbidetuko duena.

Ildo horretan, Euskal Herriko klimaren aldeko kontratu sozial baterako Euskal Herria Bilduk bost ardatz estrategiko proposatzen ditu:

1. Anbizio klimatikoa Europarekin sinkronizatzea

Pariseko klimaren goi-bileraren aurretikoak diren plan klimatiko eta energetiko estrategikoen heldu gara une honetara. Lehenengo erabaki nagusia anbizio klimatikoa non kokatu zehaztea da. Gure ustez, ezin da Europar Batasunak markatutako anbizio klimatikoaren azpitik egon.

Beraz, hamarkada honen amaierarako, klima-helburu gisa proposatzen dugu berotegi-efektuko gasen emisioak %55 murriztea 1990eko mailekin alderatuta, eta 2045erako zero isurketa garbien (neutraltasun klimatikoa) helburua lortzea.

Helburu horiek gure gain hartzeak, gure ustez, ezinbestean premiazko bi konpromiso planteatzera garamatza:

Desinbertsioa energia-baliabide fosilekin lotutako proiektuetan

Erregai fosilen erabilerak eragiten du Euskal Herriko Berotegi Efectuko Gasen isurketen % 80 baino gehiago. Datu horren sendotasunak agerian uzten du gure herrialdean erregai horiek, batez ere gasa eta petrolioa, murrizteko prozesu bati ekiteko beharra dugula. Murrizketa hori egiteko, erregai horiekin lotutako aktiboetan desinbertitzeko ibilbide-orri bat diseinatu behar da. Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasuan, gaur egun, aktibo energetiko gehienak gasarekin lotuta daude. Egutegi bat zehaztea proposatzen dugu, gure erakundeek eta sektore publikoa osatzen duten organismo eta entitateek uko egin diezaioten haien merkataritza-jardueran jatorri fosila duten produktu energetikoak erauztea, fintzea edo prozesatzea duten enpresa edo erakundetan dituzten partaidetza edo finantza-tresnei.

Klima-estrategia integrala diseinatzea

Klima-neutraltasuna eskatutako epeetan lortzeko estrategia integral bat diseinatzea. Sektore-estrategiei koherentzia emango dien ibilbide-orri argia eta kongruentea behar dugu, bai eta epe labur, ertain eta luzerako ezarritako helburuen arabera finantzaketa-plan bat ere. Estrategia integral horren oinarriak EAeko eta Nafarroako Foru Erkidegoko klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren legeen bidez formulatu beharko lirateke. Lege horiek hurrengo urtean onartzea aurreikusten da. Bi legeek lurralde-koherentzia gorde beharko lukete, bi erkidegoen arteko sinergiekin eskaini ditzaketen ahalmenak aprobetxatzeko.

Era berean, mekanismo zehatzak ezarri behar dira bai klima-ekintzen betetze-maila ebaluatzeko, bai eta, ezarritako klima-helburuen arabera, berotegi-efektuko gasen murrizketan duten eraginkortasuna ebaluatzeko.

2. Gastu publiko orokorraren eragin klimatikoaren ebaluazio sistematikoa, hala nola, martxan dauden azpiegituretako inbertsioarena, zein Europako funtsetatik eratorritako inbertsioarena

Inbertsio eta gastu publikoaren arloan mugarri bat ezarri behar da. Gastu publikoaren plangintzan ezin dugu krisi klimatikoaren faktorea alde batera utzi. NBERen Garapen Iraunkorreko Helburuek aspaldi lotu zuten iraunkortasun ekonomikoa eta soziala ingurumenaren iraunkortasunarekin; izan ere, puntu honetara iritsita, ezin dugu kontuan hartu balio ekonomikoa sortzea, klimari dagokionez duen eragina alde batera utzita.

Karbono-aurrekontuak

Horregatik, bada garaia 0 karbono aurrekontuak abian jartzeko, berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioa eta etorkizunerako proiektzioak oinarri hartuta, gure lurralde osorako emisioak murriztu ahal izateko helburuen banaketa territoriala zehazteko. Kontuan hartu behar dira jarduera ekonomikoko sektoreak eta haien integrazio koherentea politika sektorialetan EAEko eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazio guztien partetik.

0 oinarriko aurrekontuak

Eskasiak baldintzatutako koiuntura ekonomiko batean sartzen gara, non trantsizioei ekiteko eta gure gizarte-egiturak aro berrira egokitzeko inbertsio eta gastu publikoko beharrak oso handiak izango diren. Egoera horrek, administrazio publikoak behartu behar ditu jarduteko lehentasunak birpentsatzera eta garapen iraunkorraren printzipioei buruzko baliabideak esleitzera, planteamendu oldarkor bat garatuz. 0 oinarriko aurrekontuaren teoriak aplikatu behar dira, ikusi ahal izateko zerk ematen dion benetan balioa gizarte-ongizateari (klimate faktorea txertatzen duen ikuspegi publiko batetik), eta horretara bideratzea baliabideen esleipena eskasia-ingurune batean kudeaketa eraginkorragoa eta efizienteagoa egin ahal izateko. Zentzu horretan, aipamen berezia behar dute Next Generation funts europarretatik datozen baliabideek: funts horiek finantzatuko dituzten inbertsio guztiek koherentzia zorrotza izan behar dute neutraltasun klimatikoaren aldeko estrategiarekin.

Beraz, bada garaia gure lurraldean martxan dauden azpiegiturretan egiten ari diren inbertsio nagusiak ikuspegi klimatiko batetik berriro ebaluatzeko, eta moratoria bat aplikatzeko klima-aldaketa arintzeari edota egokitzeari dagokionez errentagarritasun sozial eta ekonomikoa frogatzen ez duten horiei.

3. Gobernantza klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloan

Ezarrirako epeetan neutraltasun klimatikorantz pausoak emateak dakarren erronka handiari gobernantza kooperatiboko eredu baten bidez bakarrik ekin dakioke. Intereseko eragile guztiak barne hartuko dituen eta sistema osatzen duten elementuetako bakoitzaren rola zehaztasunez definituko duen gobernantza-sistema bat. Erronka klimatikoa, aldi berean, erronka demokratikoa baita.

Horretarako, sektore publikoak ekonomian duen zeregina birdefinitu behar da. Ikuspegi oker bat nagusitzen da oraindik ere, zeinaren ustez, sektore publikoa aberastasuna kentzen edota soilik banatzen duen eragile bat bezala ikusten den, eta ez da uste berritzailea, aberastasun sortzailea eta arriskuen hartzailea izan daitekeenik. Ikuspegi horrek kalte egiten dio lankidetzara publiko-pribatu dinamiko eta interesgarri bat eraikitzei aukerari.

Sektore publikoak aldaketa teknologikorako norabide bat sortu behar du, eta norabide horretan inbertitu. Garaiak identifikatzeko eta aukeratzeko ahalegin zehatzak egin beharrean, garapen ekonomikorako eta aldaketa tekni-

korako norabide bat proiektatzeak aukera teknologikoen panorama zabaltzen du, eta horrek eskatzen du sektore publikoak eragile-sare bat sortzea, aukera hori lankidetzara publiko-pribatuaren bidez baliatzeko prest egongo dena.

Helize laukoitzean oinarritutako berrikuntza irekia deiturikoa aktibatzen garaia da, gure lurraldeko eragile ekonomikoak, jakintza arlokoak, bai eta gizarte zibila bera ere, klima-neutraltasunerako bide-orriaren partaide bilakatuz. Ez da ez egokia, ez onargarria aurre egin behar dioguna bezalako berrikuntza prozesu batek eskatzen dituen terminoetara dagokienez, eta are gutxiago termino demokratikoen ikuspegitik, enpresa multinazional batzuei paper erabakigarri bat ematea, batzuetan interes orokorraren kontrakoak diren interes korporatiboaren arabera jokatzeko dutela erakutsi baitute.

Hala ikusi dugu, Iberdrolaren kasuan, zerutik eroritako bere etekinekin, eta Repsolen kasuan bere kontseilari delegatua Energiaren Nazioarteko Agentziak (IEA) berak trantsizio energetikoari buruz ezarritako irizpideen kontra agertu da. Bai Iberdrolak, bai Petronorrek soluzioaren parte izan behar dute, baina ez da onargarria haiek erabakitzea zer egin behar den. Sektore publikoa interes orokorra lehenetsiko dela bermatzeko dago.

Klima-neutraltasunerako bidean administrazio publikoen eta euskal gizartearen jardura eraginkorra izango dela bermatze aldera, hiru mailako gobernantza-sistema bat ezar liteke Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan, klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren legeek araututakoa. Halaber, beharrezkotzat jotzen dugu entitate publiko bana abian jartzea, erkidego bakoitzaren estrategia energetikoen motorra izan daitezen.

- » **Klima Aldaketa eta Trantsizio Energetikoaren Sailen Arteko Batzordea:** Klima aldaketa eta trantsizio energetikoari dagokionez, Administrazioaren sail ezberdinen eta bere erakunde instrumentalen ekintzak koordinatzeaz arduratuko da.
- » **Klima Aldaketa eta Trantsizio Energetikoaren politikari buruzko Gizarte Kontseilua:** Ingurumen arloan eskumena duen Sailari atxikitako organo kolegiatua, aholku emateko. Bere helburu nagusiak honako hauek dira: administrazio publikoetara klima-aldaketa eta trantsizio energetikoarekin zerikusia duten politikari buruz aholkatzea, klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko neurriak proposatzea eta lurraldeko sektore sozial eta ekonomikoen parte-hartzea bultzatzea.
- » **Klimarako Herri Asanblada:** Herritarren parte-hartzea ahalbidetzeko eta sustatzeko espazio bezala sortzen da. Ariketa parte-harzailea da gogoeta eta jakintza kolektiboa sortzeko, herritarrek informazioa jaso, eztabai-datu eta adostasunak eraikitzeko aukera izan dezaten, ea zeintzuk diren eman beharreko soluzioak neutraltasun klimatikoa epe barruan modu justu eta solidarioan lortzeko beharrezkoak diren eraldaketa handiei. Asanblada bana sortuko lirateke Nafarroan eta EAEn.
- » **Nafarroako Energia Agentzia sortzea eta Energiaren Euskal Erakundea Energia Berriztagarrien Euskal Erakunde bihurtzea:** Nafarroan Nafarroako Energia Agentzia sortuko litzateke eta EAEn Energiaren Euskal Erakundea Energia Berriztagarrien Euskal Erakunde bihurtzera joko genuke. Erakunde horien xede nagusiak ondorengoak lirateke:
 - A. Ekintzak sustatu eta egikaritzea efizientzia, kudeaketa eta aurrezpen energetikoen atalean, bai eta energia berriztagarriei dagokienez ere.
 - B. Energia komertzializatzea aplikatu beharreko legediari jarraituz.
 - C. Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko azterketak eta analisiak egitea.
 - D. Ekimen energetiko publiko bultzatzea eremu instituzional guztietan, bereziki energia-efizientzia sustatzeko Nafarroa eta EAEn administrazioetan eta euren erakunde autonomoetan.

4. Politika birbanatzaileak eta finantza-tresna trantsizionalak

Ez dago klima-neutraltasunerako trantsiziorik aberastasunaren birbanaketa handi bat egin eta enplegua banatzen ez bada. Politika klimatikoek erraz eskuratzeko modukoak izan behar dute sektore kalteberentzat; hala ez bada, euren eraginkortasuna oso mugatua izango da, gizartearen sektore batzuk ezin izango direlako aldaketa horren subjektu izan, eta baldintzatuta egongo da, eskubide sozialen murrizketak ekarriko duen erantzun sozialaren ondorioz.

Ekonomia klimatikoki neutro baterako trantsizioa modu ekitatiboan egiteko, eta eskubide sozialetan atzera egin gabe, ondorengo tresnak aktibatu behar direla uste dugu:

- » **Zerga politika berria:** Premiazkoa da zerga ereduaren erreforma sakon bati heltzea. Bada, fiskalitateari buruzko eztabaida zabalik dago maila globalean zein Estatu espainolean. Zerga politika berriak lehenbailehen egon beharko luke indarrean trantsizio energetikoaren erronkari erantzuteko, progresibitatean eta joera birbanatzailean sakontzeko, diru-bilketa handitzeko eta, finean, eredu berri baten oinarriak jartzeko, klima-neutraltasunerako trantsizioak eskatzen duen eraldaketa sozial eta ekonomikoaren erronkaren arabera eredu bat, alegia.
- » **Enplegu politikak:** Gure lan merkatuaren gaineko kontrola eta erabakiak hartzeko ahalik eta gaitasun handiena behar dugu enplegu politika aktibo eta pasiboen bitartez, lan baldintza duinak bermatzeko eta enplegua banatzeko politikak abian jartzeko. Gainera, blindatu behar gara 2012ko lan erreformaren atal kaltegarrienetatik, indarrean jarraitzen baitute, eta lehentasuna eman behar zaie lurralde mailako hitzarmenei negoziazio kolektiboaren marko propio bat marrazteko, gure lan merkatuaren ezaugarrien arabera.
- » **Funts klimatiko hirukoitza:** Uste dugu bi funts klimatiko aktibatu behar direla klima-aldaketaren ondoriozko hondamendiek eragindako kalteak arintzeko, egokitzeko eta konpontzeko politikak finantzatzeko.
- » **Inbertsio Funts Estrategikoa:** Eskura ditugun tresna finantzarioak aktibatu eta erabili behar dira izaera estrategikoa duten inbertsio publikoak egiteko industria politika aktibo baten mesedetan.

5. Aurrekontu-politikan gizarte-ongizate eta aurrerapenaren adierazleak

Guztiok dakigu klima-neutraltasunerako trantsizioa ez dela energia iturri berriztagarriek baliabide fosilak ordezkatzeko bakarrik, harago doala, berez hori posiblea ez delako. Hori dela eta, energia-efizientzia arloko politiketan esfortzu erraldoi bat egin behar dugu nahitaez, eta aldi berean produkzio eta kontsumo ereduak eraldatu behar ditugu aurrerapen sozialaren ikuspegi batetik eredu jasangarriak sustatzeko. Klima-neutraltasunerako trantsizioak gure bizitzako esfera materiala murriztea ekarri behar du. Zentzu horretan, Barne Produktu Gordina (BPG) aurrekontu-politikaren adierazle nagusi gisa erabiltzeari uzteko garaia da.

BPGren gorabeherak neurtzen dituen hazkunde ekonomikoaren adierazlea ez da gizarte baten ongizatearen isla zuzena: bere eduki kualitatiboaren aldagaia guztiz baztertzen du; ekarpen positibo bezala kontabilizatzen du herri baten ekonomian balio erantsia duen guztia, gizakion produkzio edota kontsumo jarduerak eragiten dituzten kalteak (kutsadura, baliabide naturalak agortzea, istripuak) batez ere konpontzeko balio duten gastuak barne; ongizatea dakarten jarduera eta baliabide ugari (soldatapekoak ez diren jarduera guztiak, esaterako) ez dira merkatuan aintzat hartzen eta, beraz, ez dira BPGn txertatzen; BPGri berdin zaizkio horrela sortutako aberastasunaren banaketa, ingurumen-kostua, produkzio-sektore gehienetan dagoen lan-malgutasuna eta abar.

Ildo horretan, aurrekontuaren ikuspegi tradizionala, onuraren eta kostuaren epe laburreko azterketa batean oinarritua, aldatu behar da, eta ebidentziek ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko aukera handiak ditugula erakusten duten arloetan jarri behar da arreta.

ehbildu